



### **III. "PIRINIOTAR BEHI ARRAZA" ARGAZKI LEHIAKETARAKO OINARRIAK**

#### **PARTE-HARTZAILEAK**

Lehiaketa irekia da eta parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta betetzea dakar.

#### **GAIA**

"PIRINIOTAR BEHI ARRAZA ETA BERE INGURUA"

#### **XEDEA**

Irailaren 21ean eta 22an ospatuko den Behi-Azienda Piriniotarraren XXXII. Lehiaketa-Enkante Nazionala iragarriko duen kartel eta eskuorriko argazkiak aukeratzea.

#### **ARGAZKI KOPURUA, AURKEZPENA ETA AURKEZTEKO EPEA**

Parte-hartzaile bakoitzak hiru (3) argazki aurkezten ahal ditu gehienez ere, eta baldintza edo ezaugarri hauek bete beharko dira

- berak egindakoak, hau da, propioak
- argitaratu gabeak. Dena den, horietako bakarra izan daiteke aukeratua.
- Argazkiak behi piriniotarraren eremu naturalean ateratakoak izan behar dute
- koloretan edo txuri- beltzean
- **formatu bertikalean soilik** kartelaren tamaina eta diseinua dela eta
- Euskarri digitalean aurkeztuko dira, JPG edo TIFF formatuan.
- Ahalik eta erresoluzio handienarekin eta moldaketa gutxienekin: argia, kontrastea, tamaina (gehienez %20 txikiagotu ahalko da). Moldaketa gehiegi dutela ikusiz gero, epaimahaiak argazkiak lehiaketatik kanpo utz ditzake.
- Fitxeroak aurkezteko 2 aukera daude:
  - I. Eskura: CD, DVD edo pen-drive batean, Baztango Udalaren bulegoetan (Foru Plaza, z/g. Elizondo).
  - II. Posta elektronikoz: [baztan@baztan.eus](mailto:baztan@baztan.eus) helbidera igorrita (2MB gehienez)

Argazkiekin batera, honako datu hauek ere eman behar dira:

- Argazkiaren izenburua
- Egilearen izen-abizenak
- Helbidea, herria
- Posta elektronikoa
- Telefonoa

**Aurkezteko epea:** 2019ko ekainaren 14a, arratsaldeko 14:00etan (ortziralea).

## **EPAIMAHAIA**

Honako hauek osatuko dute epaimahaia: ASPINA elkarteko ordezkari bat, bi abeltzain, argazkigintzan aditu bat eta Baztango Udaleko zinegotzi bat.

## **SARIAK**

Epaimahaiak hiru (3) argazki hoberenak sarituko ditu, urrenez urren:

1. Saria: **400 €**
2. Saria: **200 €**
3. Saria: **100 € ekin.**

Lehen sariak kartela eta liburuxkaren azala iragarriko ditu. Bertzeak aipatu liburuxka horretan eta behi-azienda lehiaketaren publizitaterako baliabide ezberdinetan ere erabiliak izan daitezke.

Aurkeztutako argazkiak Baztango Udaleko eta Aspinako web orrietan ere argitaratuak izan daitezke.

Irabazleen izenak honela jakinaraziko dira: irabazleei zuzenean jakinaraziko zaie eta aipatu webguneetan eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da.

Sari-banaketa behi-azienda piriniotarraren lehiaketaren egunean izanen da.

## **ERANTZUKIZUNA ETA ESKUBIDEAK**

Antolakuntza taldeak erabakiko du zer egin oinarri hauetan aurreikusirik ez dagoen egoera baten aitzinean.

Egile bakoitzak lehiaketaren antolakuntza taldeari ematen dizkio bere argazkien erabilera eta erreprodukzio eskubideak. Honek, aldiz, erabilitako argazki guztien egilea nor den ezagutzera emanen du.

## **LEHIAKETAREN JARRAIPENA**

Lehiaketaren jarraipena Baztango Udaleko eta Aspinako webguneen bidez egiten ahal da.

Edozein kontsultarako [baztan@cederna.es](mailto:baztan@cederna.es) helbidera zuzendu.